

# JASANGARRITASUN- POLITIKA



# AURKIBIDEA

## JASANGARRITASUN-POLITIKA

3

EGINKIZUNA

4

IKUSPEGIA

5

BALIO  
KORPORATIBOAK

6

LERROKATZEA

7

GARAPEN  
JASANGARRI-  
RAKO HELBURUAK  
(GJHAK)

8

BERRIKUSPENA

9

ETENGABEKO  
HOBEKUNTZA

10

KONPROMISOA

11

EROSKETA-POLITIKA

12

JARDUNBIDE  
EGOKIAK





## EGINKIZUNA

Batzar, eztabaida eta talde-lan prozesu baten ondoren, mahai gainean jarri diren hainbat gai eta egindako inkestetatik eskuratutako datuekin sektoreari buruzko ondorioak atera dira. Partehartzaileen kezkek izango dira landuko diren gaiak hurrengo urteetan, jasangarritasunaren alde. Horien artean:

- Ekonomia zirkularreko sistemak ezartzea.
- Aztarna ekologiko txikiagoa duten materialak erabiltzea.
- Lanpostuak birmoldatzea, gizarte-inklusiua errazteko.
- Kultura eta identitatea ikustaraztea eta indartzea jomugan.
- Ingurumena jomugan jartzea eta horren inguruko sentsibilizazioa sortzea.
- Jasangarritasunari buruzko gaien inguruan prestatzea eta horiek ezartzea.

Bilbo mota eta formatu guztietako enpresa eta elkarteetako bileren egoitza gisa sustatzeko eta antolatzaileentzako aliatu estrategikoa izateko integratuko diragai horiek, eskatzen diren etagero eta sofistikatuagoak diren premiei erantzuteko, betiere jomugako eta inguruko jasangarritasunari lotutako interesak alde batera utzi gabe.

Laburbilduz, Bilbao Convention Bureau lanean ari da jomugako irudia hobetzeko, hiria enpresen egoitza bilakatzeko eta mundu mailako ospe ona lortzeko. Horrek guztiak berarekin dakar industriaren, tokiko ekonomiaren eta lurraldeko printzipioen beharrekin bat datozen ekitaldiak erakartzera. Behin egoitza finkatuta, Convention Bureau alderdien arteko lotura eta bultzatzaile gisa aritu da, aholkuak emanaz eta eskatzen diren irizpideak hobeto betetzen dituzten erakundeetarako bidean gidatuz. Azkenik, jarduketa horiek izan duten inpaktua aztertu da, alderdi okerrak hobetzeko lan egin da eta jardunbide egokiak hartu dira arrakasta lortzeko gakotzat.



## IKUSPEGIA

Bilbo kaleetako eta establezimenduetako garbitasunagatik nabarmentzen den jomuga da. Aireak kalitate bikaina du eta naturaren freskotasuna hauteman daiteke hiriaren erdigunean; hori zerbitzu aurreratuekin batera, bizi-kalitate altua ematen die bai herritarrei baita bisitariei ere. Gizarteak sustrai sakoneko kultura dauka eta balioen artean: errespetua, berrikuntza (batez ere, industrian eta teknologian), tolerantzia eta gizarte-inklusioko sentrazio orokorra, zeina jarduketa turistikoa duela hainbat urte landu izan den, oso ezaguna den ondarea ahalbidetuz.



## BALIO KORPORATIBOAK

Bilbao Convention Burearen balio korporatiboek Bilbao Ekintzak ezarritakoak barne hartzen dituzte. Bilbao Ekintza egitura horren barruan sartzen da, Bilboko Udalaren sozietate publikoa da, eta Bilboko herritarrentzako gertu, eskuragai eta konprometituta aritzen da. Jarrera proaktibo eta dinamikoak ditu, iritziak kontuan hartuz eta tokiko beharrei erantzunez; horregatik, malgua eta erresilientea da aldaketetara arrakastaz egokitzeko.

Eginkizun nagusia gizartean dauden premiei erantzuteada, eta horretarako jarrerabarnerratzailea, solidarioa eta kohesionatzailea du. Gainera, lan egiten da errekurtsioak optimizatzen eta horiek modu eraginkorrean kudeatzen. Erakundeak asmo handiko alderdi pragmatikoa erakusten du, ageriko emaitzak lortzeko esku artean dituen proiektuetan sakonduz.

Azkenik, erakundeak gardentasun politika bat du, fidagarritasuna erakutsiz eta guztiontzako onak diren emaitzak bilatuz. Jarduera horiek berrikuntza muintetik gehituz eramaten dira aurrera.

Proiektuari begira, #BilbaoArimaBerdea ekimeneko lan-mahaietan esku-hartzen dutenek hainbat balio zehaztu dituzte:

- INKLUSIOA eta ERRESPETUA, pertsonak ezer baino lehen.
- ELKARLANA eta LANKIDETZA skateholderrekin.
- AURRERAKUNTZA eta BERRIKUNTZA sektorea garatzeko.
- BIZI-KALITATEA herritar eta bisitariarentzako.

## ALINEACIÓN

Aipatu bezala, Bilbok asmo aktiboa du sektore guztietan jasangarritasunaren arloan garatzeko, eta hori lehenago ere landu izan da. Gainera Udalak GJHak ditu bere ildo estrategikoetan, Bilbao Convention Bureau bezala, eta horrek jomugari esperientzia ematen dio. Bilbao Convention Bureauaren helburu guztiak, Udalaren erakundea denez gero, udaleko Agintaldiko Planarekin bat datoz, BiCBko Jasangarritasunerako Ekintza Planean adierazten den bezala.

Bestalde, Bilbao Convention Bureau, ICCA (*International Congress and Conventions Association*) erakundearen kide da. ICCAk jasangarritasuna hartzen du ekitaldien oinarritzat, hainbat programaren bidez.

Aldi berean, *European Cities Marketing* (ECM) taldearen parte gara. Talde horrek hiriko alderdi espezifikoetara eta hiri-turismoaren garapenera bideratutako taldeak ditu, eta azken horiek jardunbide egokiak partekatzen dituzte, gaiak eztabaidatzen dituzte eta jardueri ekiten diete ECM knowledge groups taldearekin. Era berean, *Meeting Professionals International* (MPI) erakundeari lotuta gaude. Erakunde horrek, erkidegoko komunikazio globala aintzat hartzen du eta honako hauek eskaintzen ditu: heziketa, berrikuntza, sektoreari aldaketak eta aukerak ematen dizkion sarea eta industriaren sustapen eta hazkunderako ekintzak. Hori guztia, pertsonak erdian kokatuz eta sektorea indartuz, jardunbide egokien eta zintzotasun balioekin.

Bilbao Convention Bureau elkartearen azken berrikuntza izan da GDS Movement (*Global Destination Sustainability Movement*) erakundearen parte den jomuga jasangarrien GDS-Index rankingean sartzea. Helburu horrek nazioartean jomuga jasangarri gisa kokatzea ahalbidetzen dio.



# GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJHak)

## 4.GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJHak): KALITATEZKO HEZKUNTZA

Lan egoki bat egiteko beharrezkoak diren gaitasunak dituzten gazteak eta helduak lortzea. Ezagutza teorikoak barneratzea eta garapen jasangarria sustatzeko horiek ezartzea.

4 QUALITY  
EDUCATION



8 DECENT WORK AND  
ECONOMIC GROWTH



## 8.GJH: LAN EGOKIA ETA EKONOMIA SUSPERTZEA

Lanpostu berriak eta lan egokia garatzera bideratutako politikak sustatzea. Baliabideen kontsumo eraginkorra hobetzea. Tokiko kultura eta produktuak sustatzen dituen turismo jasangarria bultzatzea.

## 9.GJH: INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK

Industria inklusiboa eta jasangarria sustatzea. Enpresa txikietarako sarbidea handitzea, tokiko merkataritza bultzatzeko. Azpiegiturak modernizatzea, jasangarriak izan daitezen.

9 INDUSTRY, INNOVATION  
AND INFRASTRUCTURE



11 SUSTAINABLE CITIES  
AND COMMUNITIES



## 11.GJH: HIRI ETA ERKIDEGO JASANGARRIAK

Errekurtsuak kultura eta natura ondarea babestera eta zaintzera bideratzea. Ingurumen inpaktua murriztea, udal-hondakinen kudeaketa hobetuz. Ekonomia, gizarte eta ingurumen loturak bultzatzea.

## 12.GJH: EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK

Baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra lortzea. Elikagaien hondakinak murriztea. Hondakinen kudeaketa ekologikoa lortzea, albo-ondorioak murrizteko.

12 RESPONSIBLE  
CONSUMPTION  
AND PRODUCTION



17 PARTNERSHIPS  
FOR THE GOALS



## 17.GJH: HELBURUAK LORTZEKO LOTURAK SORTZEA

Sektoreko egonkortasuna areagotzea, garapen jasangarria lortzeko, politikak eta horien koherentzia koordinatuz. Inklusiorako eta garapen jasangarrirako gizarte-politikak gehitzea.

## BERRIKUSPENA

Harreman estua dugu sektoreko eragileekin, datozen erronkak identifikatzeko eta zehazteko, kide bakoitzaren aurrerapenak ezagutzeko, alderdi ahulenak hobetzen laguntzeko eta jomugaren indarguneak sendotzeko.

Ohiko jarduna mantenduz gero, sei hilean behingo bileren bidez, jasangarritasunera erabat bihurtzeko beharrezkoak diren alderdi berriak bilduko ditugu, noski, horiek gure politikan txertatuz. Enpresen hazkunde interesak jakiteko, bakarkako arreta eskaintzen diegu.

Gainera, ekitaldien informazioa biltzen dugu kanpoko enpresa baten bidez, eta ondoren enpresa horrek ebaluazio-txostenak egiten ditu.





## ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Bilboko Udalaren parte den eragile publikoa gara, gizarteko interesei erantzuteko sortua. Interes horiek aldatuz doaz inguruko joeren eta baldintzen arabera, eta horiek identifikatzeko jarraipena egiten diegu sektoreko enpresei eta industriaren parte ez diren skateholderrei.



Horregatik, garrantzitsua da zuzeneko harremana izatea eta sortzen diren beharrei erantzuteko prest egotea. Horretarako tresna garrantzitsuak dira:

- Etengabeko hobekuntza aplikatzea
- Berrikuntza
- Elkarlana

Etengabe gabilz aztertzen, datuak biltzeko zerbitzu baten bitartez, datu horiek geroago erabiltzeko, urteko txostenak egiteko. Informazio horrek ahalbidetzen du ezarri dugun PDCA (Plan, Do, Check, Act) zikloa mantentzea eta berrelikatzea.

## KONPROMISOAK

Lortutako konpromisoak dokumentu bereizietan zehazten dira. Honako hauek dira horietako batzuk:

Biltzarretako turismo jasagarria, Bilbon joera berde bat sortzeko, bezeroa gure politikarekin bat egitera bultzatuz. Horrela, onura sozialak, ingurumeneoak eta ekonomikoak lortzen ditugu.

Giza Eskubideekin konprometituta gaude eta kontuan hartzen ditugu berdintasuna, inklusioa eta tolerantzia, eman daitezkeen gatazkei aurrea hartzeko.

Konpromisoa hartu dugu jomuga jasagarri gisa hazteko, gure bazkideak bidean aurrera egin dezaten bultzatuz eta lagunduz ("leave no one behind").

Gizartean, kulturean, ingurumenean eta ekonomian eragin positiboa duten jarduerak eta ekintzak eskaintzeko konpromisoa hartu dugu. Puntu hau ekitaldiez baliatuz egiten da, eta aztarna edo eragin positiboa uzten saiatuz.




## EROSKETA-POLITIKA

Produktu, material eta bitarteko jasagarriez hornitzeko konpromisoa dugu. Garrantzia ematen diogu tokiko artisautzako produktuei eta berrerabili daitezkeen eta ingurumenerako onak diren materialei. Hornitzaileak lortzean, aparteko puntuazio bat zehazten zaie jasagarritasuna errespetatzen duten enpresei.

Gure bazkideak modu jasagarrian hornitzera bultzatzen ditugu.

Gure bezeroei jasagarritasunaren arloan eragin onuragarria duten jarduketa eta ekintzak proposatzen dizkiegu.



## JARDUNBIDE EGOKIAK

Dokumentu honek jaso egiten du pentsatzeko eta jarduteko txertatu dugun era. Inguruko beharrek hala eskatzen dutenean aldatuz joango den dokumentua da.

Inpaktua duen edozein jarduera, positiboa bada edo ez, ebaluazio eta gardentasun sistema bat izango du jakinarazteko.

Herritik eta herriarentzako zeregina da. Beraz, politika hala eskatzen duten skateholderrei erraztu behar zaie, eskuragarri egoteaz eta publikoa izateaz gain. Hori dela eta, politikaren komunikazio proaktiboa eta etengabea bermatzen dugu.

Azkenik, ekintza guztietatik ikasten dugu, jardunbide egokiak kontuan hartuz, gero partekatzeko eta saritzeko.

Horrela sektore eta jomuga optimizatuak lortzen ditugu.





Dokumentu hau Bilbao Convention Bureauko lantalde osoaren lankidetzari esker prestatu da, eta lantalde osoak izan du haren berri. Horiek horrela, zuzendariak dokumentu hau onartzen eta sinatzen du:

Kepa Olabarrieta

A handwritten signature in purple ink, appearing to read 'Kepa Olabarrieta'.

**B**ilbao Convention Bureau

JASANGARRITASUN-POLITIKA  
BERDEAK ETA JASANGARRIAK